

MARÍA ETXABE

*Itziarko ama*



MARÍA ETXABE

# ITZIARKO AMA

ANGEL URANGAREN  
irudiekin eta JORGE GARCÍAK  
egindako erretratuarekin

OLERTI ETXEA  
ZARAUTZ  
2002

© IKERITZ. Gipuzkoa, 13, 5º F. 20800 ZARAUTZ  
375 Posta kutxatila · Tel./Faxa: 943 833 633

ISBN: 84-89997-97-7 · L. G.: SS-866/02

MARIA ETXABE. Zarautzen jaio zen 1903ean eta herri berean eman zuen azken hatsa 1993an. Jarduera literario laburra izan zuen:ale bi baino ez dugu jaxo berengandik: teatro-lan bat eta Donostian eman zuen hitzaldi baten gidoia. Teatro-lanak *Itziar'ko ama* du izena eta Salvador Arriola apaizaren *La Virgen de las Angustias* gaztelaniazko lanaren itzulpena da. Gipuzkoako Aurrezki Kutxaren *Juventud* aldizkariaren literatur lehiaketako saria hartu zuen lanak eta Azpeitian estreinatu zen 1929ko irailaren 7an. Teatro-lan horri buruz honakoa esan zuen Artertzalek: «Ederki euskeratua dago izan ere antzerki au. Euskera argi. Legun. Goxoan. Anterkian gertatzen danari dagokion bezalaxe».

Gure edizioa egilearen illoba zen Karmele Etxabe-k Euskaltzaindia-ri oparitutako idazmakinez egindako jatorrizko lanean dago oinarrituta. Elkarre honek erreztu du edizio hau egiteko aukera.

# ITZIARKO AMA

## Antzez notinak

MARTIN	40 urte
MALEN	40 "
MIKEL	12 "
PEDRO MARI	75 "
JOXE	35 "
JUANTXO	35 "
ANDRE JOXEPA	65 "
MIRENTXU	32 "
INESTXO	12 "

## Lehendabiziko atala

*Etxe behartsu bateko sukaldea. Aurrez leiho bat. Mahai bat, ta lau aulki mahaitik zerbait aldenduta. Bi ate, bat etxe barrurako eta bestea ganbararako. Kaiola bat kardantxilo batekin, leihotik kanpora, eta mahai ankari lotuta txakurtxo bat.*

### I

#### Malen eta Mikel

*Galtza zahar edo txamar bat konpontzen azalduko da Malen, ixil samar abestuz; eta Mikel jolasian, xakaponak mahai gainean botiaz.*

MALEN: Zer ilun ari dan jartzen zerua! (*Mendiruntz begiratuaz*)! Nolako hodei beltzak itsas aldetik! Euri-jausiren bat dator. Eta orain gogoratzen naiz txoria leihoan dagoala. (Eser lekuan utziko du josten ari zana, ta barruratuko du kaiola). Non zeunden nere maite hori? Ahaztuta nengoen zutzaz eta ia ia gelditu zinan hortxen leihoan, dagon hotzakina. (*Begiratuaz!*) Jaungoiko maitea! Janik ez dizut ipiñi. Hobe da bai nere senarrak ez dakien, bestela... erruki nintzan. Gutxi gutxitan esaten dit: «Malen, ez gero txoritxoaz ahaztu» (*Mikeli*). Txori-buru ez bestelako txori-buru, ez haiz asko gogoratu txoriari jaten ematiaz.

MIKEL: Ez didatelako agindu. Gainera ez al daki zer esantzun aitak bart arratsian? «Bihar etzaio janik eman behar; arreta geiokin eskatzen ikasi dezala». (*Zer negarrak egin zitun aitonak!*).

MALEN: Ez dezala behintzat aitak jakin, txoritxua janik gabe egon dala, bestela...! elorrioko bandera daukagu!

MIKEL: Ah! Txoriagatik esan al dit? Nik uste nun, aitonagatik esan zidala.

MALEN: Ia ba: utzi hori ta hua ardo bila euri zapar bat jausi baino lehen (*olio ontzi eta zahatotxo huts bat emanaz*). Ba dakik; zahatua gordeta bluxapian eta olio ontzia agirian eraman behar dala. (*Era horretan ipiniko dizka*). Ardoteaira heldutzian, begiratu atetik jende asko ote dagon ala ez; asko balego... itxo egin danak edo gehienak alde egin arte; ordun gorde ontzia eta atera zahatua; erteterakoan berriz... gorde zahatua eta azaldu ontzia. Entzun al dek ongi?

MIKEL: (*Zerbait hasarre*) Badakitela; beti boto horrekin da....

MALEN: Jakin eta hala ere eleiz mutilak intzentsonariua ibiltzen duten bezela ekarri huan zahatua. Ba gaur, horrela ekartzen badek igerriko diok. (*Eskuari eraginaz*).

Hartzak dirua... eta han orduko hemen. Entzun al dek? Begiraiok ba. (*Mikel irteten da*). Mutil bihurri hori... Zer esan ote zuten ikusi zutenak? Oraindik txinparta pixka bat daukagunari eskerrak, bestela ez geunden toki txarrian.

## II

### Andra Joxepa ta Malen

JOXEPA: Abe Maria Puixima!

MALEN: (Andre Joxepa da. Honek zerbaiten berri ekarriko digu). Aurrera... Ene Andre Joxepa! Luzaro jardun al da deika?

JOXEPA: Ez... bai zera! Egun on Jaungoikoak eman daigula. (*Esku zakela dakar*).

MALEN: Honelako eguraldi txarrakin, nola ausartu da etortzen? (*Oso legunkiro*) Eseri, eseri, Andre Joxepa.

JOXEPA: Horregatixek etorri naiz ba. Eleizara nijoala atzo, ikusi nun zure aita oinutsik, eta otzikara haundiakin zegoela: errukitu zitzaidan oso, bera itxura hartan ikusita, eta etxeratu nintzanean ekin nion zoko astintzen eta... (*Zakela irikiaz azalduko ditu*) arkitu nitun nere senar zanaren galtzerdi ta jantzi hoek. Esan nion alabari: «Begira, Mirentxu, sastar samarrak dira, baina zerbait antolatu ezker, ondo etorriko litzaizkieke Pedro Mari gizarajoari. Zer derizkiozu?» «Bai, bai; utzi bitza hor gainean eta aurki antolatuko ditut» —erantzun zidan—. Eta gaxoak, sendagileak hala agindu ziolako aspaldian josten ez bazun ere, apal ondoren hoietzek egiten jardun zan: hemen zulua itxi, han adabakia ipini... behintzat jazteko lain moldatu ditu.

MALEN: Hori da, hori alaba daukana, andre Joxepa! Ez dauzka nolana hiko eskuak hoiek horrela moldatzeko!

JOXEPA: Koitaduak ahaleginak egiten ditu. Nere ezbehar guzietan Jaungoikoak laguntzen dit. Hogeita hamasei urte dira alargundu nintzala: mutilak bost urte zitun, eta Mirentxuk bi. Nola izaten diran gauzak! Orduan hasi ginan dirua zerbait aurreratzen nere senarrak irabazten zunetik. Orduan sendagile zegon hemen, baina Jaungoikoak hala nahita, zerura eraman zidan. Aurreratuta neukan pixkatekin eta nere gurasoak utzi zidaten beste pixkatekin hazi nitun seme alaba hoiek... (*Zotinka*) Semea orduntxe hasi zan guztiontzat irabazten, eta hura ere Jaungoikoak eraman. (*Negarrez*): Egun gutxi barru beteko da urtia. Harrezkero eskerrak Mirentxuri: berak josten irabazten du zerbait.

MALEN: Eta... osasuna izan dezala.

JOXEPA: Jaungoikoak hala nahi dezala! Baina... ez dakit, ez dakit zer ikusi behar dedan oraindik. (*Zotinka negarrez*). Bere osasunak buru-hauste haundia ematen dit. Hilabete daramaki egunetik egunera zurbiltzen: jateko gogorik ez dauka, oso lo gutxi egiten du eta beti itun eta eroria dago. Sendagileak esaten dio asko jan beharra daukala, haizia hartuaz ibiltzeko, ta abar...; baina... berak, guziaz alde egiten die... ezin det atera etxetik. Bihar du bere eguna, ta beste urteetan bezela Itziarrera igoko dala uste det. Ah Malen! (*Ixilunea*). Oso estul txarra dauka: (*Negarrez*). Eta hortik etzaigu gauza onik etorriko.

MALEN: Ez da horrenbestarainokoa izango. Behartsuak noiznahi izaten degu honenbeste ta gehiago.



JOXEPA: Bera ere ez da ikarutzen baina... Eta zuek, nola zaudete?

MALEN: (Oraintxen da neria). Zer esango det? Behartsuak ezin ondo ibili. Oso gaizki. Nere senar gizajoa ez dabil ondo; orain ere bere karranpa (reúma) aldiakin dabil eta, urti egiten da lanik ezin egin duala ikustean. Nere aitaz ez da ia inortxo ere oroitzen! Eta hemen gabiltz, erdietan gosiak, andra Joxepa! Patata goiz ta arrats; asko gozatu gabe berak, eta... (*Negartsu*) hala ere, kutiziz betiak gaudela diote.

JOXEPA: Hau mundua hau! Badirudi behartsuak ere ezin ikusi dituztela.

MALEN: Hori esan beza. Baita berorren alabarengatik ere, hain ona izan arren herrian diote...

JOXEPA: (*Ikaratuta*). Nere alabarengatik? Jaungoiko ona! Eta zer esaten dute?

MALEN: Pizkor ibili zala alkatiaren semia atxitu nahian.

JOXEPA: Jaungoikoak gorde gaitzala! Zer gauzak asmatzen dituzten!

MALEN: Eta hura, denbora pasa ibili zala berorren alabarekin; hau berriz sinisturik zegoela eta...

JOXEPA: Ene zenbat gezur! Entzun Malen. Nere etxetik ez du irten hitz erdi batek beragatik; bere burua garbi azaldu nahi zunen bat jardungo zan horrela. Alkate jaunaren semia nere alabaren ondoren hasi zala, egia da, baina Mirentxuk, alaba onak egin oi duten bezela, esan zidan zer gertatzen zitzaion. Harrezkero, nere alaba igesi zebilen; berak igarri izan behar zion eta, aldendutzen zan.

MALEN: Ah... ! Baina... Egia da beraz maite zuala? Eta, zer egin zun berorrek horrelako gauz onari heldu gabe alabarentzat? (*Ixilunea*). Nere anai Juantxon zai ezin egongo da behintzat; hamalau urte dira bere berririk ez degula; onazkero hila izango da; itxurak hala dira.

JOXEPA: (Zalantza hau neronek ere badaukat aspaldian) Horrelako gauzik ez det uste bururatuko zitzaionik. (*Ardurarik ezpalio bezela*). Oso umea zan Mirentxu, Juantxo Amerikara jua zanean, eta nahiz ordun berak txorakeriren bat edo beste honeri esan, ez da hau buru hausteko gauza.

MALEN: Ba... alkatiaren semea bezelakoak, ez dira noiznahi ta edonun arkitzen; mutil egokia, aberatsa ta... zera... ez da gero nolanahiko jokua!

JOXEPA: Zorioneko dirua! Ez da hau aski; zerbait gehiago behar da.

MALEN: (*Oldoztuaz*). Ez dakit bada zer gehiago...

JOXEPA: Ez naiz harritzen: Azaletik bakarrik begiratzen ohituak gaude ta...

MALEN: Ez det hitzik ulertzen.

JOXEPA: Zer ardua dio mutil bat ederra ta aberatsa izateak, Jaungoiko zalea ez bada?

MALEN: (Itxura pranko) Beraz... horrelakoa dalako, berorren alabak ezezkoa eman ahal zion?

JOXEPA: Ene...! Malen, ez itzazu gauzak horrela entzun. Alkatiaren semiakin horregatik ezkondu etzala ez det esan. Esan nahi nuke ezkontzeko etzaiola begiratu behar diru ta edertasunari bakarrik, ezkontzetan gauza hoiek azalekoak dira-ta; senargaiaren ohi-turari ere begiratu behar zaie.

MALEN: (Nik emango dinat tolanak) Hala da, bai; egi haundia gainera. Berok gu baino azkarragoak dira ta hobeto begiratzen dute ezer egin baino lehen.

MALEN: Zertarako dituzte ezkonduak edertasun eta aberastasunak, baldin beren artean ez badute pakerik? Ondo dakizu ezkondu ezkeru zenbat ezbehar eta nahigabe izaten diran senar-emazte artean; horregatik ba esan nahi nizun, alperrik izango dirala edertasun eta diruak, beren arteko pakerik ez badute; azaleko maitasunak horixe ekartzen du.

MALEN: Bai, bai, hori egi haundia da, andre Joxepa; halaxe izaten da.

JOXEPA: Zuk ondo dakizu zer esaten duten gazte horregatik. Pazko-egun edo horrelako jai haundiren bat ez izanean, ez dala eleizan izaten eta bere eskutan ez dala irakurgai on bat ikusten, eta esan ohi da ta egia, «zer irakurri hura ikasi». Beste horrelako gauz asko ere esaten dituztela, zuk, badakizu ondo.

### III

#### Berak eta Mikel

MIKEL: (*Sartzen da txistu joaz inor ikusi ez balu bezela, ta mahai gainean zahatu ta ontzia utziaz eseriko da jolasteko xakaponakin*).

MALEN: Bejondaikela, gizontxo! (*Ixilunea. Purrustadan*) Zer esaten diat nik?

MIKEL: (*Batere ikaratu gabe lasai erantzuten du*). Zer... gordeta ekartzeko zahatua; eta etxe barrenean nola nagoen...

MALEN: (*Oso ernegatua*). Ez dek hori! Zitala ez bestelako zitala! Egun on, arratsalde on, dana dala emateko etxera etortzian.

JOXEPA: Utzi zaiozu, Malen. Gaztea da ta oraindik ikasiko du bai.

MALEN: (*Ukabila erakutsiaz*). Ikusiko dek! (*Joxepari*). Nere aita ez dabil ondo ta harrentzat ardo bila bialdu det.

JOXEPA: Oso ederki egina. Eta horrelako gauz huts batekin, nola poztutzen diran zaharrak!

MALEN: Baina, jendia jardun ez dedin, esan diot zahatua ondo gordeta ekartzeko; nor edo nor izaten da ba beti maxiatzeko; arduarekin ikusi ezkeru berriz... esango lukete, aita eskean biltzen ditun txanponak ardotarako izaten ditugula.

JOXEPA: Bai, hala da, nahiago dute askok gaizki hitz egin ondo baino. (*Altxatzen da aukitik*). Banua, banua, berandu da-ta. (*Laurleko bat emanaz*) Abarketa batzuek erosteko; ezin emango dizut orain gehiago.

MALEN: Eskerrik asko, andre Joxepa. Horrenbeste emango baligute danak! Baina behartsuaz ez dira oroitzen.

JOXEPA: Ipini zazute Jaungoikoagan zeuen itxaropena, eta etzerate gaizki izango; berak lagunduko dizute. Esan ohi dan bezela «Jaungoikoak estutzen du, baina ez du itotzen». Agur eta beste bat arte.

MALEN: (*Ateraino lagunduaz*). Bijua ondo andre Joxepa; gorantziak alabari ta lehenbaitlehen sendatu dedila.

JOXEPA: Jaungoikoak nahi dezala! Agur.

#### IV

#### Malen, Mikel eta Pedro Mari

MALEN: Lau errial, galtzerdiak eta jantzi zahar bat. Baterez baino hobia dek. Hori parrezalia eman dit. Zera... ez dula nahi ezkondu alkatiaren semiarekin, eleizara joaten ez dalako... Beste txakur bateri hezur hori. Maleni ez dio behintzat sartuko ziri hori. Hor gertatuko zan... ibili ibili ta... aspertu danielan berari parre egiten... beste askori egin diona egingo zion: haize preskua hartzera bialdu. Horixe izango da horren ezbehar guzia txori hoiek buruan dabilzkian artean. Ezin leike izan besterik: gaizki egina dago, bai, baina... ez dute erru guzia mutilak, baizik neskatil aize hoiek, beren buruetan ez dabilkite beste gauzik: zapel haundia jantzi eta erratza bazterrean utzi; gero amets haundiak egin ia eskura etortzen ote zaizkien libra banako babarrun aleak! Ja... ja... ja...! Uste ote dute beren arpegi politagatik bakarrik atxituko dituztela xaguak zepuan bezela, oraingo mutilak...

MIKEL: (*Zahatuarekin jolastuaz*)

Eleiz mutilak bezela dakart  
beteta nere zahatua.  
Bataiatuta eman dirate  
ez deion egin gaitzikan!  
(Bestela nere bizkarra...  
nere bizkarra bestela....!)

Edan edan, umore ona  
izan dezan.  
Ez beza izan  
gaitz egiteko bildurrikan  
(*Iturriko urak ez dio egingo kalterikan*)

MALEN: Utzi zak hori. Arraiopola! Horlako gauzak ikasiko dituk bai, baina etzaik horregatik bururatu hori (*zahatua*) gordetzea kanpoko bat ikusi dekanean. Haizia alen haizia!

JOXE: (*Atia juaz*). Eup... !

MALEN: (Jesus, hauxe da jendea). Aurrera (*Hasiko dira thunthunna ta txistua urrutiko soinua balitz bezela*).

JOXE: Gabon... hala esan beharko, ez dauka itxura ederra baina. Oraintxe trumoa bator (*Mikeli begiratuaz*) Zer diok, mutiko? Nola ez haiz aitonaren bila joan?

MALEN: Ez diot utzi. Eztul pixkatekin dabil eta haize hotza dago ta...

JOXE: (Ta oraintxe ikusi det ardotegetik irteten) Ordun... ezin bialiko det tabako bila... Erre gabe egongo naiz.

MIKEL: Bai, bai, joango naiz. (*Pozez*) Ekatzu, ekatzu dirua.

JOXE: Azkar etorri, gero... ez daikela errietarik egin hire aitak!

MIKEL: (*Dirua hartuaz joango da ateruntz*) (Bat aitarentzat kenduko diot, (*Ta bertatik aterako balu bezela sinu eginaz*) eta ez dio igarriko).

MALEN: (*Bertarago entzuten diran soinuaz*). Zer da hori? Zer gertatzen zaie gazte hoi-  
ei garai hoetan hain alai kalietan ibiltzeko?

JOXE: Baina... ez al dakizu? Zu bakarrik izango zera herrian ez jakina. Antonen semea etorri da Amerikatik eta bere etorrera ospatzeko aparria emango die bere lagunai gaur arratsean. Juantxo zure anaiak beste horrenbeste egingo du etortzean. Ha zer nolako eguna bota behar degun orduntxe!

MALEN: Egun horren zai bazaude... eserita egon zindezke gixajoori, bestela nekatuko zera zutik egoten. Hamalau urte bere herririk ez degula. Nun ote dira bere hezurak!

JOXE: Bai, hala da: baina... bizi izan bazan, beste era batera egongo zan bere aita, Pedro Mari gizarajoa!

MALEN: Jo zaik beti horrera! Horrelako errukia badiozu, zergatik ez dezu ostatu eder batera eramaten?

JOXE: Hori ez da kontua, Malen. Zerekin baneuka, ez uste izan egingo ez nukela. Benetan esaten dizut; bera eskean ikusita bihotza zatitzen zait. Atzo bertan, nere lantegi-ko leihotik begira egon nintzan. Han zegon "Itxas aldeko" txoko batian haizeari sorbalda emanaz, noiz baino noiz inor igaroko, eskua luzatuta, zerbait ematen ote zioten! «Nork ikusi zun eta nork ikusten du Pedro Mari gizajoa», nere kasa esan nun. «Zu sasoi hartako gizon langile eta zintzoa, eskua luzatu beharrean arkitzen zera, Jaungoikoaren izenean eskatzen. Hori da zahartzaroa! Zure semea begira balego... etzinake ez horrela izango, eratuko lituzke gauzak beste aldera».

MALEN: Begira, Joxe. Behin baino gehiagotan esan dizut gure aita eskian ibiltzen bada, bere gogoz ibiltzen dala. Nik eta nere senarrak ahaleginak egin ditugu hori burutik kentzearren, baina... alperrik, beti beriakin. Zuk ez dakizu zer lotsak hartzen ditugun horretxegaitik. Gutxi gora behera badakizu zergatik dan burutazio hori.

JOXE: Zergaitik da bada? Ez det ulertzen. Zergatik esan neri...

MALEN: Eskian batutzen duna, badauka baso erdi batentzat! Ez diogu ba etxian berak nahi aina ematen! Ez gaude bere kutiziak betetzeko. Jan beharrik ez dauka; asetzeko aina etxean izaten du. Jendiak berriz usteko du, diru dana guri ematen digula... eta, ez da horrelakorik; berak biltzen duna bere kutizientzat izaten du.

JOXE: Ba... Malen, herri guziak beste gauzik ez du esaten.

MALEN: Bai, mingain txarrak. (*Negar itxura eginaz!*) Ez dula nere aitak esaten sekula, bere alabak ez beharreko gauzik egin dionik!

JOXE: Ez, hori ez. Inoiz hitzegin badu, zu goraltzeko izan da, baina... esantzazu, ezin ahal liteke hori izan zueri dizuten bildurragatik? Edo zueri dizuten maitetasunagatik?

MALEN: Etzazula zorakeririk esan, Begira Joxe: nere senarrak ez daki zer egin aita alai ikustearren. Gutxitan utziko zun bere txiki ardorikan gabe apaltzeko.

JOXE: (Hori da gezurra esatia. Jarraitu zagon egia azaldu gabe). Gehitxo iruditzen zait hori, zure senarrak egiteko. Berari askotxo gustatzen zaio zahatuari gora eragitea, eta ez det sekula ikusi mozkorra besteai eskeintzen, bera egarri ta urdail hutsarekin dagoela.

MALEN: Eskerrik asko, gixontxo! Nere senarra mozkorra dala diozu, eh?

JOXE: Ez... mozkorra ez det esan... zera... esan nahi nun... zera... alegia, zure senarrak lau egun ditula lanerako astian, eta lau zeratela jateko... ta... errentarik ez dezutela, ta nola liteken sortutzia etxe batian behar dan guzia...

MALEN: Zuk eta mingain-luze bazter-nahastutzaile hoiak emandakoakin izango da noski. Ikusiko litzake! Horra etxekua! Begira: zuk ez daukazu zer ikusirik gai hontan.

JOXE: Baina hala ere jakiten da; jendiak jardun egiten du ta... Ez ba harritu entzuten dezunean...

MALEN: Zer?

JOXE: Bapo bizi zeratela aita zaharren bizkarretik. Zeuzkan lur guztiak zaldu arte ez diozutela bizitzen utzi; hala ere ezin dutela ase zeuen gose hori, eta hor dabilkizutela eskian euritan, hotz eta kazkabarretan, asko errukitu gabe bere autsiaz, eta gutxiago begiratuta bere urte-zamari.

MALEN: Zaude ixilik, tresna txarra! Zeuk asmatutako gezurrak dira hoiak guziak.

JOXE: Jardun hoei zerorrek eman diezu bidia. Ez nentorren honetzaz jardutera, baizik zure senarrari lana ematera biharko, baino gure jardunak honetarako bidia eman digun ezkerro, ondo hartu det zuri zerbait esateko. Gainera gogoan izango dezu nola zure anaiak esan zidan Amerikara juateko agurtu nindunean; «Begira Joxe: nere lagun ona izan nahi badezu, zaindu zazu ondo nere aita». Ia berari begiratzeko eskubiderik badaukatan ala ez.

(*Aldiz aldiz ikusten dira tximista batzuek.*)

MALEN: Bai, bai. Ederki azaldu du bere aitaganako maitasuna. Hamalau urte ez diola idazten. Izan bazan hau lakari bat urre, honezkerok jaso zun bai; baina sastraka zaharrik ez du inortxok nahi.

JOXE: Malen; ez dit onik egiten Juantxogatik daukazun jardun horrek. Berak aita utzitzia zerbait dirutzearren izan zan, eta berari zegokion diru guztia zerroei eman zizuen. Zeinen ederki aitari hitzegiten ziozuten bera dirutsu zegon artean! Baina... gero... azkar bidali zenduten eskera.

MALEN: Joxe, oraintxen bete-bete naukazu. Etzinake, ez, horrela jardungo Martin hemen balego.

JOXE: Ondo da. Ixildu gaitezen bada. Uste det nahiko izango dezula esan dizkitzutenakin, gogoan hartu nahi badituzu ondo.

MIKEL: (*Zalapartan sartuaz*). Horra azkar etorri. Ez da ala? Ene... hori jendez dabil kalietan. Torizu. Etzait ezer gelditu: doi-doi eman didazun dirua. (Ez dio igarriko zigarro bat palta duela).

JOXE: Datorrela bada bihar Martin lanera; lan sastar batzuek dauzkat eta lehen bait lehen egin nahi nituzke. Ia ba... Gabon, eta ondo lo egin. (*Bijua*)

### Malen eta Mikel

MALEN: Horra etxekoa! Ikusiko litzake! Hau edo hura egin detala: ez diogula aitari ondo egiten; nere senarra alperra dala, ta... nik ez dakit zenbat aitzaki...! Beti marmarrian. Badirudi Martini noizean behin ematen dion lanagatik guri agintzeko eskubidea daukala. Baina... ez du asko esaten bera nola dabilen neskatx ondoren eta errosarioak ale baino kalabaza gehiago izaten ditula gizajoak. Txanpon bateko arrotza izan, eta ezin eta nahiko haundizalea besterik ez da. Xur xurrian aurreratu du diru pixkat bere buruari opa ez diola behar adina, baina...

Arro ta gose  
soinu asko  
ta intxaur gutxi.  
Hori bezelaxe  
gaur asko dago  
haundi nahiko  
ta ezin bizi.

## VI Lehenagoak eta Martin

MARTIN: (*Sartuaz, tximistak ikusi ta trumoiak entzutean*). Hauxe da gau ikaragarria! Haiziak berriz arnas gabe uzten du. Sartu al dezu txoria? (*Bazterretara begiratuaz*). Eta Txuli non dabil? Gixajoa! Jarri zazu su ondoan.

MALEN: Zer soinu dabiltz hor? Ez diguzu ezer esaten.

MARTIN: Antonen semeak apari bat ematen die bere lagunai. Jesus mutilak! Amerikano pranko badegu oraintxe herrian. Besteren bat etorria izan behar du bart arratsian Andrexen ostatura. Baina hori ez du inork ezagutzen; zertara etorri dan ere ez daki inork; ez du inorekin hitzegiten. Batzuek diote asaba zaharren bat ote daukan hemen hilda eta haren korputz edo hezurren bila etorri ote dan. Joxerekin kanposantura joaten ikusi omen dute ta...

MALEN: Hori izango da, hemen izan da Joxe zu bihar lanerako behar zaitula esaten eta.

MARTIN: Beste batzuek diote ezkontzeko agiri bila etorriko zala; erretore etxetik irten dala. Kontuak kontu... erretore jaunak nahiko diru zabaldu dula behartsuen artean; bakoitzari bosna duro. Amerikano horrek emanak izango ziran noski. Ez al du aitona dirurik ekarri?

MALEN: Honera ez du inork ezer ekarri.

MARTIN: (*Buruari eraginaz*). Eh...! Ikusten...! Nik esaten detanian sastraka zahar horrek guri parre egiten digula...! Alditxo bat dala ez dula ezertxo ere ekartzen.

MALEN: Hortxen ba...! Gaur jandakoak etzion gaitz haundirik egingo.

MARTIN: Beraz aparria aurreratu dezu.

MALEN: Hor daukat eguerdian gelditutako eltzeko pixkat.

MARTIN: Horreri jaten ematia ere... Hobe genduke bere ordeztu txerri koxkor bat hazi. Harek zerbait emango liguke.

MALEN: Hori esan zazu!

MARTIN: Ez bada... Ez badu arreta gehiago jartzen eskerako... aurki egingo det horrekikoa.

MALEN: Zer egingo dezu! Nahi ezta ere eduki egin behar!

MARTIN: Ez horixe... Laster emango diot bultzada bat eta... han joango da arkaitzetik behera; mozkortuta zegoela esan gero, ta... bapo. Ixilduko dira guziak.

MALEN: Ixo... oin hotsak dira. (*Entzunaz*). Bera da.

MARTIN: Ez esan ezer; ia ematen digun dirua. Aizak, Mikel: ez gero ahaztu beti bezela patrikak miatzeaz... eta... begi zolia... entzun?

## VII

### Lehenengoak eta Pedro Mari

*(Ekaitza gogortzen dijoa)*

PEDRO MARI: On egin deizutela. *(Bizkarretik kentzen du poliki zahatua, eta hasiko da bertatik ateratzen lursagar, ogi sagar ta abar, aulki baten gainean ipiniaz dana)*. Hauxe da gaba! Jaungoiko maitia! Etxeraino ez nintzala helduko uste nuen!

MARTIN: *(Zerbait aldenduta)* (Ez gendun kalte haundirik izango).

PEDRO MARI: Itsu-itsu gelditzen nintzan tximistakin, eta haiziak bazterreraino botatzen ninduen! Ene Itziarko Ama! Haiiek estutasunak. Ezintzan oinkada bat eman zerbait trabatu gabe. Hasten da bat batean euri zaparrada eta... Jaungoikoak hala nahi, sortu zait Xantiren semea "osaba, osaba" deadarka "itxoegin pixka bat; hauxe erdibituko degu" esan dit, eta kendu dio astoari gainean zeraman zira eta berarekin esalita etorri gera herriraino! Zer mutil leiala Xantiren seme hori!

MARTIN: *(Altzatzen da zer ekarri ote dun ikustera, eta begiratu zorrotz bat zuzentzen dio aitari)*.

PEDRO MARI: Ene ba Jaungoikoa! Hori da eguraldia txartzia. Itsasua ere oso haserratu da eta hor dabilta arrantzale gixajoak nolabait. Itziarkoko Amak gorde ditzala!

MIKEL: *(Iseka egiten dio aitonari ta joaten da)*.

MALEN: *(Plater bat beteko du eltzeokokin: gainean ipintzen dio kutxare bat eta ogi zati bat hartuaz jartzen dizko aitari aurrez-aurre lurrean. Baita ere ekartzen dizka lastaera ta estalki (manta) zahar bat; aldamenean utziaz irteten da)*.

PEDRO MARI: *(Ikusiaz bakarrik dagoala)*. Jaungoiko maite maitea! Hauxen da gaue-roko pesta. Ni etorri baino lehen apaltzen dute eta ni ikusiaz bat batean ixiltzen dira. Ez dute gehiago zer esanik! Nik bildutako guzia jasotzen azkar eske, baina neri... lurrera platera eta... hor konpon hari, Pedro Mari. Itziarko Ama, arren ba, ez nazazu utzi zure eskutik! Zer alaitasun gutxi, maitasunik ez dagoen etxean, nere Jaungoikoa!

Hotz mina dabil  
goi aldean  
baina...  
hemen nere etxean  
Bakar bakarrik!  
Zenbaterako hotza  
daukan nere bihotzak!  
Maitasun bero pixkat  
ez dago neretzat.  
Ez daukat batere  
ezertarako pozik:





honela bizi baino  
heriotza hobe nuke  
guzia gogo onez  
eraman liteke:  
eskean ibili beharra  
hotz eta gose...  
inoiz beren ahotik  
hitz gozorik  
entzungo banuke.  
Baina betiko  
beren zakarkeriak  
asko laburtzen dute  
nere bizia.

*(Gogo txarrez ekiten du jaten, eta bigarren aldiz ahora eramatean utzitzen du kutzara platerian esanaz).*

Ezin det, ezin... !  
ezin det ordea  
txistua ere irentsi

*(Malakoak legortuaz).*

Zer nahigabea!  
Jaungoikoagatik  
izan bedi!

Ez dirate beste jakirik bialdu. Eskerrak Inestxok ekarri diskitan bi sagar erre eta opil bigunari. Koitadea! Berak jan behar lituzkenak ekartzen dizkit. Hau zoragarria! Zenbat aldiz eskatzen diot Itziarko Amari bera ta nere semeagatik! Nolako maitasunarekin hitz egiten didan: Aitona, e al diote janaririk ekarri? Eta irtengo da zerbaiten bila neretzat. Ezti goxoa da neretzat aingerutxo hori. Ah... bera nere alaba balitz! Ez du Malenen antzik. Larri izan tzan nere azkeneko txanponak garbitu arte; harrezkero ez det hitz gozo bat entzun bere ahotik. Eta bere senarra? Nagon ixilik! Ni aurrean ikusi orduko alde egiten du; ni ikusteak ez dio onik egiten. Mikeltxo berriz... iska ta parre.besterikez du neretzat. "Sastraka zara" deitzen dit. Jakiña! Gurasoai entzuten diena. Txakurra bera maiteago dute eta aita zahar hau guzientzat janari bila atez te; ez dute neretzat asko gordetzen... berak nahi ez dutena... eta lastaera zahar bat etzateko; hitz bat bakarra ere ez neretzat. Itziarko Ama! Ez badet nere semea gehiago ikusi behar, zertarako det bizia?

Z A P I A

## Bigarren atala

*Bide bat itsasoa ikusten dala; bide honen ertzean arkaitzak; hoetako batean du ohi-tura Pedro Mari eserita eskean egoteko. Agertokian zugatz asko, eta bat, zerbait al-denduta, erdi aldean. Juantxoaren gordelekua izan dedin.*

### I

#### Pedro Mari

PEDRO MARI: (*Arkaitzean eserita, eskua aldamenean dula*). Arratsalde erdia oraintxe eta ezer gutxi bildu det. Ez da harritzekoa: honelako eguraldi hotzarekin? Zein igoko da ba eleizara? Ah...! Ez naiz oraintxe asko gauza. Hotza ta gosea daukat. Nere alaba-txoa ere ahaztu da gaur jana ekartziatz. Ogi zatitxo bat da eman didaten lehendabiziko gauza, ta horixe besterik ez det gaur jan. Nork daki, mutiko bihurri hori honeraino ez igotzearren bidean hustu ote dun lapikotxoa eta jolasean ibili ondoren etxeratu ote den nigandik balijoa bezela. Ez nitzake batere harrituko; ez litzake lehenbizikoa izango. Baina Inestxo ez etortzearekin harritzen naiz. Onenian etzun izango bestetan bezela igesterik. Gaxua! Guraso gabe gelditu zan, bihotz gabeko jende hoiek egin ziran bere jabe, ta abere batentzat baino erruki gehiago ez dute beretzat. Umezurtz errukarria! Zer garratza izango zaion berari gogo txarrez ematen dioten ogi pixka hori! Ta zer garratza dan bizia, bihotzak maitasun apur bat arkitzen ez duanean... Bere nahigabeak azaltzera etortzen zait eta hementxen, nere bihotz onduan bere burua duala eta bere es-kutxuakin nereak estutuaz, negarrez, guzia esaten dit. Ez da nolana hikoia izaten bere poza, asko maite dedala esaten diodanean! Zenbat gauza ikusi beharrean ote da bera mundu zital honetan! Ikaragarria da neretzat gogapen hau! Ene nere Ama, izan zaite zu bere Ama kutun-kutuna eta zaindaria! (*Ixilunea*). Oin-hotsak entzuten ditut. Nor-bait ote dator? (*Entzuna*). «Jaungoikoaren izenean zerbait aitona zahar honentzat...»

### II

#### Andre Joxepa, Pedro Mari ta Mirentxu

JOXEPA: (*Mirentxuren besotik dator ez nekatzearren*). Jainkoak lagun, Pedro Mari.

PEDRO MARI: Hala izan dedila, Andre Joxepa. Oso arratsalde txarra autu dute eleizara igotzeko.

JOXEPA: Euririk ez dala...

MIRENTXU: Nola leike hemen egon horrelako hotzarekin?

PEDRO MARI: Hemen al zinan zu ere? Etzaitut ezagutu.

JOXEPA: (Jolas gogoarekin, baina maitetsu). Orain dabilen aina amerikanokin gehituko ziran limosnak, eh?

PEDRO MARI: Hemendik ez da oraindik inor igaro.

JOXEPA: Ez? Eguraldia ondu zai egongo dira. Horrenbeste urte hemendik urrun igarota, honezkerok Itziarko Ama ikusteko gogoakin egongo dira, beraganako zaletasuna txiki-txikitandik izan ohi dute ta.

PEDRO MARI: Ez ote dute ekarri nere semearen berririk?

JOXEPA: (Pedro Mari gizarajoa). Ez dauka beste gauzarik gogoan). Ez degu ezer entzun baina! Nork daki!

MIRENTXU: Ez da egundo itxaropenik galdu behar, Pedro Mari. Bere hil berria ere zabaldu zun norbaitek baina. Begira, jendiaren jardunari belarriak itxi behar zaizka askotan.

PEDRO MARI: Ah maite! Egia balitz zuk diozuna, ez genduke kalterik izango ez zuk eta ez nik. Berok, beriala joan beharrik ez badute, berialaxe esango nioke...

MIRENTXU: Zer da bada? Esan beza azkar. (*Zer ote du?*)

JOXEPA: (Orain bere nahigaberen bat azaldu beharko digu).

PEDRO MARI: Entzun ba, ume. Nere egunak laburrak izan litezke, eta gauza bat azaldu behar dizut. Orain arte ixilik eduki det, baina Juantxok joan zan egunian zer aitortu ziran esan nahi dizut. «Aita —esan ziran— urrutira noa, ia berori ta Mirentxu ondo izan ditezen zerbait dirutzen naizen. (*Malkoak legortzen ditu*). Baldin ni hil ondoren azalduko balitz, esango diozu, maite, bere aita etzala beratzaz behin ere ahaztu, eta egunero otoi egin ziola beragatik Itziarko Amari. Eta heriotz orduan, hauxe bakarrik eskatzen diodala: hainbeste bere limosnatxoakin lagundu ditan beheko “Bilerako” umezurtz honeri! arren! begiratzeko. (*Zotinka*).

MIRENTXU: (*Negar dagi ixilka*).

JOXEPA: (*Malkoak legortuaz*) (Hemen nabilen burutik hori kendu ezinik eta horra honnek orain bere zauria berritu) Pedro Mari: buru-hauste hoiek alde batera utzi behar dira, beti gogoan erabili gabe. Bagoaz eleizakok atea itxi baino lehen. Agur; gero arte. (*Limosnatxoa eman ondoren ama-alabak jarraitzen dute bere bidean*).

PEDRO MARI: Bijoazte Jaungoikoarekin.

### III

#### Pedro Mari bakarrik

PEDRO MARI: Nork daki nere semea, honen maitasunaren jabe egiteagatik joan bazan ere Amerikaruntz! (*Ixilunea*). Nekazari baten semea, lur batzuen jabe izan arren. Nola ausartuko zan gizon ospatsu eta izen haundiko sendi bateko alabari, nahiz orain diru eskasian egon, bere maitasuna azaltzen? Zorioneko dirua! Eta mundu honetan horretxek edertzen du gutzia...! Nork daki, nork, horrexegatik joan ez ote zan hain urrutira nere semea! (*Norbait dator*) «Limosnatxo bat Jaungoikoaren izenean». (*Entzuten dago*).

#### IV

##### Pedro Mari eta Joxe

JOXE: Arratsalde on, Pedro Mari.

PEDRO MARI: (*Alaitsu*). Ah! Zu altzinan? Arraio arraiua! Oraintxe ez det inor ezagutzen! Begietako argia nola itzaltzen duten urteak! Ba, hementxe, gixontxo; kaxkarrian pixkor.

JOXE: Eta... (*maliziaz*) Zer dio alabak?

PEDRO MARI: Ba... koitadua nahiko lanekin... Arazo guziak bere gain dauzka ta bizi-modua hain dago nolabaitekoa... Baina tira! Hainbestian, hainbestian...

JOXE: (*Hasarre*) (Ez luke aitortuko... ezta hiltzeko jarrita ere).

PEDRO MARI: Antonen semea Ameriketatik etorri dala jakin det eta... eta zerbaiten aztarrenik ote duan. Baina, ikusten danez, ez du ezeren berririk ekarri.

JOXE: (Betiko bere galdera). Ez ba, ez dakit ezer.

PEDRO MARI: Andre Joxepa ta bere alaba oraintxe igo dira eleizara, eta esan didate berak ere ez dutela ezer entzun. Eta hoiek ezer ez dakitenean ez da ezer izango.

JOXE: (Mirentxu eleizan? Zer egokiera Juantxok bera ikusteko batere ezagutu gabe!) Ez nekien ezer. Nork daki! Onenian, gutxiena uste degunean, bera ere azalduko zaigu amerikano eginik bigote haundiarekin dotore-dotore, urrezko erlojua zintzilik duala...

PEDRO MARI: Ah! Jaungoikoak hala nahi dezala. Nere goizaroko lenbiziko lana hone-raino etortzea da. Itziarko Amari arren eskatzen diot beragatik eta umezurtz dagon beste aingerutxo honegatik. Horretxek maitasuna ta poza ekartzen dit. Jaungoikoak entzun dagizula, Joxe, baina... badakit, ez dakit...

JOXE: Itxaropenik ez da behin ere galdu behar. (*Limosna ematen dio*). Agur bada Pedro-Mari egiteko bat daukat eta, banua. Gero arte. (*Han inguruan gordelekuren bat dagon begira*) (Nun gordeko ote naiz guzia ondo ikusteko berak ni ikusi gabe? Ah hementxe: arkaitz horren atzian... (*Joaten da*).

PEDRO MARI: Agur, agur eta Itziarko Amak bedeinka zaitzala. Zer bihotz ona dun! Ez da behin ere joaten zerbait hitzegin gabe; beti itxaropena emanaz eta alaitsu.

#### V

##### Pedro Mari, Juantxo eta Joxe

PEDRO MARI: (*Entzunaz*). (Oin-hotsak dira). Limosnatxo bat Jaungoikoaren izenean aitona zahar honentzat.

JUANTXO: (*Aurpegia estalita, begiak bakarrik agiri dituala. Dirua atera bitartean berari begiratzen dio. Pedro-Mariri ematen dio duro bat eskura; eta aurrera jarraituko balu bezela egiten du. Pixka bat alhenduta gelditzen da, legortzen ditu malkoak eta berriro begiratzen dio*)

PEDRO MARI: Jaungoikoak ordainduko zaitu anaia. (*Diruari begira*). Ene! Duro bat! Nor ote zan zaldun hori? Hogei erreal! Eskerrik asko, Jaungoiko maitea. Aginduta daukadan bezela Ama Birjiñari bost kandela ipintzeko ederki datozkit. (*Ixilunea*). Hementxe gordeko ditut txapelian, nere bilobatxoa patrikak miatzera etorri baino lehen; bere aita han egongo da tabernaren batean, nik bildutako limosnen zai. Balekite edozer gauza egingo lidateke; baina gerta ta gerta. Ama Birjinari egindako agindua da aurrena.

JOXE: (*Sartzen da ixilik hanka-muturka eta Juantxogana hurreratuaz dio belarrira*). Mirentxu ta bere ama eleizara igo dira. Aukera hoberik ezin zitekian eskatu.

JUANTXO: Utzi nazazu orain. Utzi nere aitari begira ase nadin. Hemen ikusiko ditut berak eleizatik jeisten diranean.

JOXE: Zabiltza ba poliki, eta nor zeran ez inortxori azaldu gure asmoak bete baino lehen.

JUANTXO: Etzaitetz bildurtu. Nere aita besarkatu baino lehen, ez det inor agurtuko.

JOXE: Norbait dator. Ezkutatzera noa.

JUANTXO: (*Laiaxterka izkututzen da bertan dagon zugaitz baten atzean, eta aurpegia hobeto estaltzearren izparringi bat irakurtzen bezela jartzen da*).

PEDRO MARI: (Jende asko baletor bezalakoxe hotsa entzuten det. Amerikanoak ote dira?) «Anaiak, zerbait Jaungoikoaren izenean».

## VI

### Mikel, Pedro Mari eta Joxe

MIKEL: (*Azaltzen da alde guzietara, begira inor ote dabilen han inguruan*). (Ez nau inork ikusten). Amak esan dit aparria egiteko ez daukala ezer eta bildutako txanponak emateko. (*Bitartean patrikak miatzen dizkio*). Kontxo... ! Txanpon bat besterik ez dauka. (*Bultzada batzuek emanaz zakarkeriz miatzen dio berriz*). Nun dauzka zaldun harek emandakoak?

PEDRO MARI: Zer diozu ume?

MIKEL: Emateko neri zaldun horrek eman dizkonak.

PEDRO MARI: Baina Mikeltxo: begira zazu zer egiten dezun: Jaungoikoaren izenean ez dezazula egin horrelakorik.

MIKEL: (Norbait dator). (*Ukabilkada bat eman eta txapela botatzen dio; txapela erortzean diru hotsa entzuten da: Pedro Mari abiatzen da jasotzeko, baina Mikelek aurrea hartzen dio eta duroa jasoaz korrika dioa*).

JOXE: (*Mikel iges egindakoan agertzen da Joxe ta honela dio*). Nik astinduko haut, sorgin hori. (Txapela ematen dio Pedro Mariri). Ez estutu, Pedro Mari; laister bukatuko dira ezbehar hoiek.

JUANTXO: (*Pedro Mariren alde irteten hasten da, baina Joxe irten dala ikustean lehen-go tokian gelditzen da*).

PEDRO MARI: Ene zeruko ama! Zenbat gauza ikusteko gauden! Ah Malen gajoa! Zenbat nahigabe eman behar dizkitzun horren gaizki hazitzen dezun semetxo honek!

JOXE: Etorriko al zaie Jangoikoaren zigorra berorreri egindako guziagatik! Egon kementsu, Pedro-Mari, zure nahigabe guzien saria laister izango da-ta. Etxeratu bedi lehenbailehen, gaur ere trumoi-itxura hartzen du-ta. Agur!

PEDRO MARI: Jaunak lagun, Joxe, eta eskerrik asko zure laguntzagatik.

## VII

### Pedro Mari, Inestxo eta Juantxo

PEDRO MARI: Jaungoiko maitea! Hura estutasuna! Arkaitzetatik bera joango nintzala uste nuen. Baina...! zer egingo du mutikoak, beste gauzik ez badu ikasten bere gurasoengandik. Errukarriak! Begira gero oraindik berak ez ote dizuten egingo orain nerekin egiten dezutena! (Ixilunea. Zotin batek igesten dio).

Hogei errealekoa kendu dit! Orain ezin joango naiz eleizara. Ama Birjiñari aginduta neuzkan argiak ipintzera. Nere Jaungoiko maitea! (Beste zotin bat, ixilunea). (Oin-hotsak dira). «Limosnatxo bat Jaungoikoaren izenean aitona zahar honentzat».

JUANTXO: (*Urreratzen da, ematen dizka eskura bi hogerleko eta izkututzen da berriro*).

PEDRO MARI: Itziariko Ama! Zer ikusten det? Bi duro! Ikusi egin ote du zer gertatu dan? Ama laztana, zure eskua dabil hemen! Bota kandela aietzaz gainera meza bat agintzen dizut orain. (*Negarrez*).

INES: (*Laisterka sartuaz*). Aitonatxo: han urrutian, mahastian, izan naiz, eta horregatik ez naiz lehenago etorri. Hala ere ez naiz berorretzaz ahaztu, ez. Zerbait jan al du, aitona? Baina... ? zer gertatzen zaio? (*Ixilunea, negarrez*). Zergatik negar egiten du? Esan bezait. (*Besarkatzen dira*).

PEDRO MARI: Ez estutu, maite. Ama Birjiñak mirari bat egin du.

INES: (*Negarrez*). Ez... ez... Mirari batengatik ez da negar egiten. Esan neri!

PEDRO MARI: Hemen igaro dan zaldun batek hogei-errialeko bat eman dit; txapelian gorde det berarekin zeruko Amari bost kandela erosteko, baina etorri da Mikeltxo, patrikak miatu dizkit eta duroa kendu dit. Ama Birjiñari eginda neukan eskeinia ezin beteko nuala ta nahigabeturik nengoenean ostera bihurtu da lehen-go zalduna eta ezer esan gabe bi duro eman dizkit, begira!

INES: Halaxen da. Eta nor zan zaldun hori? Aingeruren bat izango zan behartsuari laguntzera aingeruak jeisten diradela esan ohi dute.

PEDRO MARI: Nik ez dakit zein zan, baina bera bi aldiz hurreratu zaidanean... halakoxe gauza bat egin zait barrenean... nik ez dakit nola esan.





INES: Aitonatxo: halakoren batean Mikeltxok txarkeriren bat egingo ote dion bildur naiz.

PEDRO MARI: (Bildur horixe det nik ere). Etzazu horren bildurrik izan. Ume bat da hura oraindik.

INES: Bai, baina... Eta bazkaria ekarri al diote, aitona?

PEDRO MARI: Gaur ere ahaztu zaie.

INES: Jesus... ! Bostak eta bazkaldu gabe... ! Aitona gizarajoa! Makalau pixkat ekarri diot ogian sartuta. Jan beza azkar... azkar, ordea!

PEDRO MARI: Zeruko Amak sarituko zaitu, maite.

INES: Asko maite dedalako da hori. (*Mendiruntz begira*). Ah nere Jaungoikoa! Gaba gainian degu, ta nik oraindik ardiak gordetzeko. Banua, aitona. Ilundu baino lehen jetsi behar ditut eta... (*Irriparrez*) Agur, aitonatxo.

PEDRO MARI: Zoaz, bai. Jaungoikoarekin. Itziarko Amak zaindu zaitzala. Txoko horretara joango naiz haize izkutuan hobeto jateko. (*Inestxok lagunduz txokora bijoa. Gero erdira betor eta aitonari agur egin bezaio*).

JUANTXO: (*Gorde lekutik irtenaz*). Txist... txist...

INES: (Nor ote da zaldun hori?) (Hurreratzen zaio bildurrez bezela).

JUANTXO: Ez ikaratu, maite. Aitona gixarajo hori zure aita al da?

INES: Ez, jauna; nik ez det ahaiderik. Hor, beheko bilerako neskamia naiz. Monjatxoekin bizi nintzan eta horko nagusiak ekarri nindun.

JUANTXO: (Gaxo hau erruki-etxekoa izango da!) Eta nola maite dezu hainbeste aitona hori?

INES: Aitarik ez det eta bera nahi nuke aitatzat hartu. Gainera... nere nagusiak ez nau maite, eta jo egiten naute. Aitonak berriz asko maite nau. Bera ere gaizki erabiltzen dute. Ez dute ba maite. Eta bere nahigabeak neri azaltzen dizkit, eta nik berari nereak.

JUANTXO: Gaizki ibiltzen dutela diozu?

INES: Bai jauna, ta askotan janik gabe uzten dute. Lurrean lo egin arazitzen diote eta beti errietan darabilte. Egunen batean arkaitzetik bera botako dutela ere esaten diote.

JUANTXO: Jaungoiko maitea! Zuri ere asko egiten dizutela diozu?

INES: Bai jauna. Ardiren bat galtzen bazait ez det aparirik izaten; atia itxi eta mendira bialtzen naute berriro. Gero (negarrez) gau guziaz negarrez igarotzen det bazterren batean edo eleiz bildurrez izkutaturik (tximistak hasten dira).

JUANTXO: (Gaxoa! Zer bihotz gogorrekoak diraden guraso gabeko haurtxoak horrela erabiltzen dituztenak!) Maite: ez negarrik egin! Aita bat nahi zendukela diozu?

INES: Bai jauna. Aita bat banu, nagon etxetik irtengo nintzake.

JUANTXO: (*Begiak legortuaz*). Herrira Amerikano bat etorri dala, eta nor dan iñork ez dakidala ez al dezu entzun?

INES: Bai jauna. "Bileran" ez da beste gauzarik entzuten.

JUANTXO: Ba... amerikano hori ni naiz. Ez det seme alabarik, eta behartsuak laguntzen dakien neskatil on bat bilatu nahi nuke herri honetan. Neskatil hori nere alabatxo bezelaxe izango litzake. Nahi al dezu zuk alabatxo hori izan?

INES: Bai baina...

JUANTXO: Zer baina? Nagusiak jo egiten zaitula ez dezu bada esaten?

INES: Bai baina...

JUANTXO: Zer? Esan zazu bada...

INES: Aitona ez dedala bakarrik utzi nahi.

JUANTXO: Berakin ahaidetasunik ez badezu, zer ajola zaizu bada aitona bakarrik uztea?

INES: Nik utziko banu, gosiak hilko litzake ta... nik asko maite det.

JUANTXO: (*Ixilunea. Malkoak legortzen ditu*). Ondo da. Ez horregatik estutu. Aitona ere zurekin etorriko da.

INES: Bai? Orduan bai berorrekin joango naiz.

JUANTXO: Ongi da. Orain ardiak bildu itzazu eta gero zoaz Joxeren etxera. Joxe ezagutzen al dezu?

INES: Bai, jauna. Hemendik igaro da lehentxeo.

JUANTXO: Bai, huraxe. Ni joango naiz gero zure nagusiarengana, nere etxera etortzen utzi dagizun.

INES: Eta aitona?

JUANTXO: Gurekin etorriko dala esan dizut.

INES: Hauxe poza!

JUANTXO: Zoaz orain ardietara.

INES: Agur ba. (*Laisterka dijoa pozez*).

JUANTXO: (*Begira*). Gaxoa! (*Ixilunea*). Zer zoragarria dan bera! (*Lehengo gordelekura joaten da*).

## VIII

### Pedro Mari

(*Eguraldia gogortzen da*).

PEDRO MARI: (*Lehengo lekura dator*). Hau gauza goxua jan det! Goazen lehengo lekura, berandu izan behar du baina... ! Zein etorriko da honezkero?

Ettxeratzea hobe izango det, euri itxura dago ta. Baina..., Abe Marikua jo baino lehen alde egiten badet ez det aparirik izango, ta zerbait berogarri jan gabe ez da atsegin lo

egiten. Zer egingo degu bada! Honezkero aurki joko du ta itxoegin dedin! (*Eskil hotsa entzutean txapela erantzi eta belaunbikaturik otoi dagi isilik*).

Nere semeagatik, ume horrengatik eta nere etxeoagatik. (*Nahiko lanekin altzatzen da*). Ziharo ahuldu naiz! (*Jasotzen du lurretik zakua eta makal-makal joaten da*).

Ez dakit etxeraino helduko naizen eroriren bat egin gabe. (Badijoa ixilik).

## IX

### Joxe ta Juantxo

JOXE: Badatoz! Oraintxe dira aldapa behera.

JUANTXO: (*Malkoak legortuaz*). Zuaz hortik; bakarrik egon nahi det. Berak agurtu ta gero eleiz aldera hasitzen naizenean etorri zaitetz atzetik, nere bila bazentoz bezela.

JOXE: Kontuz ba, nor zeran azaldu gabe!

JUANTXO: (*Ezer ikusi nahi ez balu bezela, itsas aldera begiratzen hasten da*).

## X

### Juantxo, Andre Joxepa ta Mirentxu

JOXEPA: (*Mirentxuren besotik agertzen da poliki poliki: Juantxo ikustean dio Mirentxuri belarrira*). Hau izango da esaten duten jaun amerikanoa.

JUANTXO: (*Oin-hotsak entzutean atzera begiratzen du ta kapela erantziaz burua makurtzen die esanaz*). Arratsalde on. Hau al det eleiz bidea?

MIRENTXU: (*Juantxoren abotsa entzutean harrituta gelditzen da*).

JOXEPA: Bai, jauna; baina hor aurreroroxe dauden bi bide hoietatik, eskumara hartu behar du; bestea herri txiki bateko bidia da.

JUANTXO: Eskerrik asko. Galduko ote nintzan bildur nintzan ta horregatik nengoen ostatuan eman didaten zuzendariaren zai. Ez da urruti izango.

MIRENTXU: Ez dauka horregatik zer esker emanik arrotz bategatik zer gutxiago egin genezake bada...

JUANTXO: Heranegun heldu nintzan herri honetara. Hainbeste aldiz entzun det Ama Birjina honen izena ta ikusi gabe ez det gelditu izan nahi.

MIRENTXU: (*Ahaztuta dago Juantxorekin. Hobeto ikustearren kentzen du mantelina begietatik*).

JOXEPA: Ez dakit berandu ez ote dan izango. Honezkero itxiko zituzten eleizako atiak.

JUANTXO: Baina zerbait eskupeko eman ezker, ez ote lituzkete irrikiko?

MIRENTXU: (Bera dala esango nuke).

JOXEPA: Ah bai! Behar beharrekoa izan ezker noiz edo noiz irikitzen dute.

JUANTXO: Agindu bat da, ta berdin zait gaur jun, bihar jun. Hemen nagon ezkerro, ordea, igoko naiz; atetik bada ere, botako diot limosna.

MIRENTXU: (Bizarragatik ez balitz bere aurpegia dala esango nuke!)

JOXEPA: Nahiz inork ikusi ez zer ematen dezun Ama Birjinak ez zaitu sari gabe utziko.

JUANTXO: Hala uste det. Nere eskaria beteko dulakoan nago.

MIRENTXU: (Jaungoiko maitea, nere begiak ondo ikusten ote dute!).

JOXEPA: Horrelako sinismenakin urrutitik asko etorri izan dira bere oinetara ahuspeztera.

JUANTXO: Oso urrutitik egin nion nik ere nere eskaera ta agindua. Gaur poz haundia-rekin ikusi det nere nahia beteta eta orain nere agindua bete nahi det.

MIRENTXU: (Zalantza honetatik irteteko gauz hau argitu behar det nik). Barkatu bezait nere ausardia baina... (*Bildurrez*).

JUANTXO: (*Oso legun*). Ez daukat zer barkaturik. Poz pozik erantzungo diot zure galderari.

MIRENTXU: (Arnasik ezin hartu dedala dirudi). Ba... ez dakit hemengo ohitura jakingo ote duan... Zerbait iritsi dutenak Ama Birjinaren izena goratzeko, beren izenak argitaldu behar dituzte.

JUANTXO: (Ezagutu egin nau. Horregatik dabil... ) Bai bere mirari guzia argitaldu behar lirake. (Zer maitagarri ta eder arkitzen det beretzat ondasun bila joan nintzanean bezelaxe) Iluna gainean degu ta banoa. Barkatu galdu arazi diodan denboragatik.

MIRENTXU: Ez horrelakorik...

JOXEPA: Poz haundia izan da guretzat zurekin egotea.

JUANTXO: Mila esker eta agindu. Gabon. (*Alde egiten du*).

JOXEPA: Agur...

MIRENTXU: Agur...

## XI

### Joxepa ta Mirentxu

MIRENTXU: (*Juantxok alde egindako alderuntz begira dago*).

JOXEPA: Ze gizon atsegina... (*Gora begira*). Ez dakit etxera baino lehen euri zaparrada bat ez ote degun izango. Baina... ume... Horixe da zera jarri zerana! Ia eraman zidazun besoa... (Mirentxuri begira). Zeri begira zaude ordea? (*Ixilune bat*). Goazen euria hasi baino lehen. (*Ixilunea*). Baina...

MIRENTXU: (*Atsegabeturik*). Ama! Ez ahal dio ezer esan gizon horreri? (*Berriz lehengo aldera begiratuaz*):

JOXEPA: Ez dakit zer esan nahi didazun horrekin.

MIRENTXU: (*Beste aldera dijoa, ia oraindik hobeto ikusiko Juantxo dijoan bidea. Ixilunea. Estutasun pixkatekin*). Bai... Bera da, bai. Bere ibilera! Bere errainua!..

JOXEPA: (*Harrituta*). Baina, ume! Zer diozu?

MIRENTXU: (*Amagana hurreratuaz*). Bai! Bera da! (*Zotinka, negarrez*). Ez dauka zalantzik!

JOXEPA: Nor baina?

MIRENTXU: Juantxo, ama! (*Bere burua amaren sorbalda gainean ipinita negarrez gelditzen da*).

JOXEPA: (Beti-beti horrela). Maite, Jaungoikoaren izenean, utzi zazu irudipen hori, bes-tela... ez dakit zer gertatu behar zaizun. (*Ixilunea*). Goazen, Mirentxu. (*Ixildu pixkat*). Baina... Zertan zaude?

## XII

### Joxepa, Mirentxu ta Joxe

JOXE: Garai hontan eta hain txarrakin berok hemen?

MIRENTXU: (*Laisterka Joxegana dijoa, zerbait jakin nahirik*). Joxe, arren, ba, Jaungoikoagatik kendu zaidazu zalantza hau lehenbailehen. Nor da zuri itxo-egiten zegoan zaldun hori? Egia esan, gero; ez nazazu engainatu; erantzun.

JOXEPA: (*Alaba gelditu nahian Joxeri*). Etzaiozu jaramonik egin. Ondoez pixka bat dauka ta horretxek nahastutzen du zerbait.

MIRENTXU: Hori Juantxo da! Zergatik ez didazu esan nahi, Joxe?

JOXEPA: Barka zaiozu. Une txar bat dauka ta ez daki zer esaten dun. (*Negarrez*)

JOXE: (Hauxen da lana. Nola aldegingo ote det?). Ez gaitezen estutu, ta hitzeginaz alkarren berri jakingo degu.

JOXEPA: (*Ondoezak burua nahastu diola adierazteko, kinu egiten dio Joxeri*).

MIRENTXU: Baina zergatik ixildu? Esaidazu egia, dan bezela! (*Negarrez*). Ez al nau ba maite? (*Zotinka*). Neri nahigabe hori ez ematearren al zaude ixilik?

JOXE: (Oraintxe ederrak eman dizkit. Ezagutu egingo zuan. Koitadua!). Mirentxu: hoiek gauzak esaten dituzu! Nundik atera dezu zaldun hori Juantxo dala? Hala izan bazan, zure ondok hitzik esan gabe igaroko zala uste al dezu?

JOXEPA: Ez ba, noski.

JOXE: Han maite izan zaitu urrutitik, eta bertatik maiteko etzaitu bada?

MIRENTXU: Ez da bera horrelakua baina... Besteren bat irten bazaio bidean...

JOXE: Etzazula uste izan horrelakorik. Juantxoren bihotzak horrelako zitalkeririk ez lioke inori egingo. Ta zuri nola, hain gogo-barrenekoa izan bazaitu beti?

MIRENTXU: Ez ote da ba Juantxo zaldun hori?

JOXE: (Ez dago zalantzarik, ezagutu egin du. Lehenbailehen egia esan ta guzia eratu behar da. Errukarri hau ezin egongo da horrela gau guzian).

MIRENTXU: (*Atsegabeturik*) Zer diozu, Joxe? Ez al dezu erantzun nahi?

JOXEPA: Maite: zaude ixilik unetxo batian bada ere. Eseri zaite, pitin bat atseden zaite, oso nekaturik zaude-ta.

JOXE: Ez estutu, Mirentxu. Egitan egitan agintzen dizut: ahalegin guziak egingo ditut egia jakiteko. Gero, laisterka juango naiz argi ta garbi guzia zuri esatera, baita hila dala esaten badit ere.

MIRENTXU: (*“Ha” entzuten ikaritzen da*).

JOXE: Ez det gehiago luzatu nahi. Banua bere bila. Agur, eta esanak esan.

JOXEPA: Agur, Joxe. (*Maitetsu*). Atsedendu al zera? (*Mirentxuri*).

MIRENTXU: (*Negarrez, eleiz aldera begira*). Bazirudin nere bihotzak barrendik irten nahi zula. Bere abotsa entzutean... arnas gabe gelditzen nintzan! (*Ixilune bat. Burua jasoaz begiratzen du eleizaruntz. Oso bizi*). Ah! Azaldu da gailurrean. (Bere antza du) Jaungoiko maitia! Baliteke ez bera izatia, baina... (*Oldozkor gelditzen da berari begira. Ixil baten poliki-poliki aldegiten dute ama-alabak herriruntz*).

JUANTXO: (*Azaltzen da, ta atzetik begira geldituko da oldozkor. Ixilune baten ondoren, bat-batean belaunikatzen da eleizara begira esanaz*:

Itziarko Ama: eskerrik asko! Zuk lagundu diozu nere aitari. Han, urrutietan, askotan zure laguntzaz behar izan nintzan, eta zuk beti entzun zenduan nere otoitza, nere esker onaren oroimenez, goralduko det zure izena. Eta hementxe, nere aita hainbeste aldiz eskean egon dan arkaitz honen gainean, behartsu daudenentzat erruki-etxe bat egingo det. “Itziarko Ama” jarriko diot izentzat. Eta zure eskilak “Abe Maria” kua jotzen dutenean, orain nere aitak bezela, orduan erruki-etxeke behartsu guziak, belauniko jarri-ta otoitz egingo dizute...

## Hirugarren atala

*Lehendabiziko atalean bezelaxe ipinita agertuko da agertokia. Sukaldea.*

### I

#### Martin, Malen eta Mikel

MARTIN: Zure aitak abadearengandik bost duro hoiek hartu dituala ikusia dago, baina alperrik: ez ditu etxera ekartzen.

MALEN: Gizona... Oraindik hartu gabea izatea baliteke.

MARTIN: Bai zera...! Zakur zahar horrek nonbait gordeko zitun, edo bestela "Bilera"ko neska zirtzil horrerri emango zizkion. Amerikanoak eman dion hogei errealekoa gordeta zeukan, ez al dezu entzun? Horixe bera egingo zun beste bostakin. Gainerontzekoakin ere hori egiten du. Gero, zuk eta Mikeltxok ase tresna zahar horren urdaila... Idi batek baino gehiago behar du berak. Gorde ba ondo, santu zahar bat bezela.

MALEN: (*Hasarre*). Ez ba; neri ez dit parre egingo. Hor ibili beharko du atez-ate eskian; nahi dunak nahi duna esan dezala, ez dedila egon alperrik eginik, eguzkia hartuta bapo eserita, gora ta behera dabiltzanai ipuiak esanaz.

MARTIN: Hori da, hori, horrek egiten duna.

MALEN: Horretarako, ordea, Mikeltxo beharko luke laguntzeko: ia itsua da ba.

MIKEL: Lurretik dirua jasotzeko pixkor ibili zan ba. Baina ni azkarrago, ta gabe gelditu zan.

MARTIN: Zergatik bultzaka arkaitzetik behera bota ez?

MALEN: Martin... Gizona... Aita degula ez altzera gogoratzen?

MARTIN: Zer aita ta zer kalabaza! Badakizu tresna zahar beharrik ez dala inun. (Mikeli). Ezta, hi ere ez haiz ona. Kardantxiluarentzat kardabera bila joateko esan diat, eta ez dek esanik bete. (Ju... u... u...!) (*Soinu bat entzuten da*) Ixo... soinuren bat iruditu zait.

MALEN: Ez da Txulin zaunkarik. Izan ere etxe hontan errez sartu liteke; morroilu on bat ez dago, eta ostikada batekin ate guztiak bota litezke.

MARTIN: Zer ba? Dirutza haundiren bat al daukazu gordeta etxian.

MALEN: Bai, zera daukat gordeta: zuk ardotegitik ekarritakoak.

MARTIN: (*Isekaz*). Edo... Amerikara juan zanian zure anaiak utzi zizun sastraka zahar hori. Etzazu behintzat galdu horrelako pitxi ederra!

MALEN: (*Martini*). Aizazu... ta alaxe da... (*Pixkat entzuten*). Badirudi ganbaran norbait dabilela.

MARTIN: Ba...! Aitaren danbatekoa zan. Sastraka zahar hori etorriko zan. Elorrio dauka, dirua ematen ezpadu! Gogoan izango du gaurko gaba!

## II

### Lehengoak eta Pedro Mari

PEDRO MARI: Gabon Jaungoikoak dagizutela. (*Ez dio inork erantzuten*). (Beti bezela: ez dute erantzun nahi).

MALEN: Ez al degu gabonak besterik?

PEDRO MARI: Baina... Zer nahi dezute bada, besterik ezin badet?

MARTIN: Ba... berak ekarritakoarekin ase dezala sabela.

MALEN: Zer iruditzen zaio? "Itxas-alde"ko haiziak eta eguzkia hartuaz egoteko bakarrik jaten ematen diogula uste al dut. Ez al du gutxi uste!

PEDRO MARI: Bainan alaba: eguraldi hotz hoekin zein uste dezute eleizara igotzen dala?

MALEN: Etzan gaur ere amerikano hori igaroko eh?

PEDRO MARI: Begira ba...

MALEN: Ez daukat zer ikusirik. Ez neri gezurretan etorri.

PEDRO MARI: Ez dizut gezurrik esango. Juantxo Amerikaruntz irten zanean, ondo heldu zedin bost kandela agindu nizkion Itziarko Amari. Dirua izan nuen garaian utzi ta utzi... baina nere agindua bete gabe ez nuan hil nahi. Gaur ba izan det, horrenbeste urteren buruan hogeirealeko bat nere mendean. Bost kandela erosi ta gainerontzekoa etxera ekartzeko asmoa nuan; bainan jua da Mikeltxo, ta danak kendu dizkit.

MALEN: Jakina zegon zer gezur entzun behar gendun! Eta hala izanda ere, santuak beteko ahal diote sabela?

PEDRO MARI: Hori esatea ere... Zure ama zanak entzungo balizu, Malen... etzenduen zuk beragandik horrelako gauzarik ikasi. Ez santuen izena iraindu, hoek Jaungoikoak bidaltzen dizkigu, baina guziak gogo onez eramateko indarra ere ematen digu, ta... gure garraztasunak, indar horren bidez zerbaitean gozatzen zaigu...

MARTIN: Dirua behar degu hemen, dirua; hitz legunakin bakarrik ez degu ezer egiten. (*Malen ta Mikel*). Alde! Guziak lotara! Utzi hortxe bakarrik; goiko santu hoiek ekarri dezaiotela aparria.

MARTIN: (*Bere artean*). Zaude luak hartu arte. Nik ikusiko det diru hoiek nun dauzkatzun. Gogorrean hasten bazera... Bestela berriz... arkaitzetik behera bihar goizean.

## III

### Pedro Mari

PEDRO MARI: Itziarko Ama! Lagun zaidazu nere atsekabe haundi honetan. Ama maitea, izan zaite nere poza. Iluntasunez inguraturik nago, ta bakardade horren hotzak bizia kentzen dit... Ama laztana! Arren ba, nere ama: erruki zaite aitona zahar honetzaz!



Gozatu zaidazu atsekabe garratz hau... ba... gertu det oraintxe heriotza. Ah! Malen, Malen! Nere ustez hobeto izango zalakoan, neretzat ezertxo ere gorde gabe nere gauza guziak eman nizkitzun, eta zuk zer egiten didazu? Zergatik narabilkizu horren gaizki? Ah, nere Jaungoikoa! Zenbat eratako gauzak ikusten diran munduan! Neri eskerrak emanaz bizi behar lukean alabak, lotsagabekeriz ito behar nau. Ni, bere aita! Alperrik dira nere nahigabe, negar eta malkoak; ez dute bere bihotz gogorra biguntzen. (Negarrez). Alperrikako gauza naizala... sastraka zahar bat naizala...! Zenbat aldiz entzuten ote ditudan horrelakoak! Eta biltzen ditudan limosnakatik ez balitz, honezkero hil ninduten.

Itziarko Ama! Ama errukitsua! Arren ta arren, entzun nere eskaera. Nere nahigabe guziak eramaten lagundu zaidazu. Nahigabe haundiak dira hoek... Arantzak bezela bihotza urratzen didate... eta... hemen, eztarrian daukadan... traba honekin... ezin det... arnasarik hartu...

#### IV

#### Inestxo

INES: (*Atea joaz*). Ave Maria...! Abemaria!

Pedro Mari! (*Ez dio inork erantzuten*). Ez dago inor hemen. Nola liteke ordea? Amerikanoarekin etxe aldera etortzen ikusi dutela esan didate auzokuak eta. (*Sartzen da ta ikusten du Pedro Mari lotan dagola*). Ene, gizon bat lotan! (*Begiratu ta ezagutuaz Pedro Mari dala*). Ene! Aitona da-ta! Aitona... ! Ez du erantzuten. (*Diadar dagi*) Aitona! Jaungoiko santua! Hilda ote dago? (*Joranez*). Aitona!

#### V

#### Guziak

MARTIN: Norbait dabilela iruditu zait. (*Ez du ezer entzuten*). Kalian ote zan? Bai, hala izango zan. (*Pedro Mari etzanda ikusita*). Ah!... luak hartu du. Orain dek neria. Hauxen da gauza! Zer gertatu ote zaio? Lan bat aurreratu digula uste det. Hilda dago... edo ez du asko behar hiltzeko.

JUANTXO: Geldi! Geldi hor! Gora esku hoiek!

MARTIN: Ez nazazu hil, etxeko gauza guziak emango dizkitzut eta.

JUANTXO: Kendu zaitte nere aitaren ondotik gaizkile hori.

MARTIN: -----

JUANTXO: Joxe, Joxe!... Igo zaitte.

JOXE: Ia esku hoiek honera!

INESTXO: Aitonatxo!

JUANTXO: Mugitzen bazera burua lehertuko dizut.

MALEN: Laguntza, laguntza guri! Hilko gaituzte... Lagundu guri!...

JUANTXO: Zaude ixilik, alaba gaizto hori... Etzazu honera inor ekarri, bestela... Juantxo naiz; zuek hiltzat zeunkazuten Juantxo. Begira ondo. Aita!, Aita!, Pedro Mari! Juantxo naiz! Hilda ote dago? Joxe, zuaz azkar osagilearengana. Datorrela aguro...

PEDRO MARI: -----

JUANTXO: Juantxo naiz, aita. Ez ikaratu.

PEDRO MARI: -----

JUANTXO: Aita: hona hemen Ameriketatik etorrita, bere semea. Berorri laguntzera nator.

PEDRO MARI: Se... me. Nere seme kutuna... Itziarko Amak bihurtu zaitu nere besoetara laztantxo hori.

JUANTXO: Bai, aita, bai! Aurrerantzean ez ezeren bildur izan. Aberastuta nator. Bukatu dira nahigabe guziak.

PEDRO MARI: Eskerrik asko... Ama laztana! Ene seme! Zure hitzak bihurtu dit arnasa. Ezaguera galtzeko zorian... ia hiltzen nengoen... zure hitz-hotsa entzutean bihotzak jaupada bat eman dit barrenean, eta berotasun gozo bat... Jaungoikoak daki horrelakorik noiz ezkerio izan ez dedan... gozotasun bigun bat zabaldu zait gorputz guzian, ta gozotasun horrek alaitu du nere anima... Hau poza daukat nere barrenean! Itziarko Ama, eskarrik asko!...

JUANTXO: Bego ixilik, gehiegi nekatu gabe, aita! Ni hemen alboan nagola, ez ezeren bildur izan. Joxe: alki bat ekarzazu ta nere aitari kontu egiozu pixka batean.

Inork ezagutzen etzuan amerikano hori ni naiz. Nik eman diot dirua, ta zuk, gaizkile horrek, diru pixka horrengatik heriotz bat egin nahi zenduan. Baina Itziarko Amak hala nahi-ta, ordu onean heldu naiz honera. Ni naiz, ba, Juantxo! Alaba gaizto ta arreba bihotz gabea! Begira ondo esaten dedana egia ote dan ala ez. Hamalau urte dira idatzi ez dizute-dala; urte asko dira, bai, baina geroz ta lantegi haundiagoetan sartu nintzan eta... utziaz, utziaz urteak joan dira. Orain bi hilabete dirala, Joxe nere lagun maite honen idaztitxo bat hartu nuan: zuek aitari ematen zeniozuten bizimodu negargarria argi esaten zidan. «Itziarko Ama —esan nuan nik orduan— sari eder bat emango det zure eleizarentzat, nere aita bizirik arkitzen badet! Izendatu nuen lanetarako nere ordezeko bat, eta lehendabiziko ontzian irten nintzan, hemen zer gertatzen zan nere begiz ikusteko. Ta ikusi det, ikusi det nere aitari harrera egin diozuten. Garaiz heldu naiz berari laguntzera! Lotuta eraman behar zinuzketet danak, bainan ez det nahi. Gure izen ona ez det guzien ahotan erabiltzerik nahi. Nere diruarekin pozez eta atseginez bizitzea nahi nuan, baina zuek ez dezute horrelakorik merezi, eta orain arte bezela behartsu ta lanian bizi beharko dezute.

## VI

### Andre Joxepa ta beste guziak

MIRENTXU: Sartu al ninteke? (Zer gertatzen da hemen?)

JUANTXO: Joxe, nere lagun maitea, ta zu, ume errukitsua, izango zerate nere sendi berria. Han "Itsasaldean", nere aita limosna eske egoten zan tokian jauregi eder bat egingo det eta hantxe biziko gera pakian.

MIRENTXU: Bera da! Ezin ziteken besterik izan! Itziarko Ama! Lagun zaidazu!

JUANTXO: Aita: bihar nere besotik igoko da eleizara bost argiak eramatera, eta nik agindutako diruak Ama Birjinari eramatera.

MIRENTXU: Jaungoiko maitea! Entzun nahiko ote dit?

MALEN: Oh errukarriak gu! Gure etorkizuna zer izango ote da?

MARTIN: Heriotzak ez ote nau eramango...

MIRENTXU: Ezin det arnasarik hartu. Indarrak ahuldu zaizkit! Ezin naiz zutik egon!

MIKEL: Ez estutu horregatik, aita. Ni haundia egin orduko aitona hilko da-ta... orduan nik bidaliko zaitut eskera haitz ondora.

## VII

### Lehengoak

JUANTXO: Irten gaitezen hemendik, aita.

MIRENTXU: -----

JUANTXO: Heldu zaiozu aitari Joxe!

Mirentxu!

MIRENTXU: -----

JUANTXO: Mirentxu, ez bildurrik izan! Sekula baino gehiago maite zaitut!

MIRENTXU: -----

JUANTXO: Barkatu, Mirentxu, lehenago eleiz bidian arkitu zaitudanian zurekin gogor samar egon banaiz.

MIRENTXU: Ez daukat zer barkaturik. Zerorrek jakingo dezu hori zergatik egin dezun.

JUANTXO: Bai. Nere aitaren nahigabeak neronek ikustearren egin det hori guzia. Orain nijuan zure etxera ahaztu etzaitudala esatera ta gure ezkontza noiz izango ote dan erabakitzen. Zure ta nere aitarentzat diru bila jua nintzan urruti, ta Jaungoikuari eskerrak behar aina badakart. Itziarko Amatzaz beti oroitu naiz, ta berak nakar orain zuen artera. Gure bihotzak elkartu ditzagun bada, ta Jaungoikuak Beragana deitu arte, izan gaitezen alkarrekin. Aita: orain Mirentxu izango da berorren alaba, ta guziok pozez beterik biziko gera.

PEDRO MARI: Itziarko Ama: Bedeinka gaitzatzu, ta izan zaite beti gure laguntzailerik onena.

AMAIA

ARGITALPEN OHARRA.- Edizio honetan grafia gaurkoturik dago, eta gaurko irakurle edo entzuleentzat egokiako diren morfologia-puntu txiki batzuk ere bai.





Liburu hau  
2002ko Irailaren 9an,  
Zarautzeko Euskal Jaiaren egunean,  
amaitu zuten inprimatzen

Gaineko azaleko bineta  
Juan Luis Mendizabalena da,  
erretratua Jorge Garciarena eta  
gainerako irudiak  
Angel Uranganak